

**Elortzibarko Udalaren zerbitzurako euskara teknikari lanpostua lehiaketa-
oposizio bidez betetzeko hautapropa.**

Deialdiaren lege-erreferentzia: Elortzibarko Alkatetzak 2025eko irailaren 10ean
eman 2025-1116 Ebazpena (2025eko urriaren 2an argitaratua, 197. NAOen).

**ELORTZIBARKO EUSKARA TEKNIKARI
IZATEKO HAUTAGAIENTZAKO
BIGARREN PROBA**

Lehenengo ariketa: kasu praktikoa.

Proba mota: idatzizkoa.

Proba egiteko denbora: hiru ordu

Noainen, 2026ko urtarrilaren 17an

**EZ JOAN HURRENGO ORRIRA,
HAS ZAITEZKEELA ADIERAZTEN EZ BADIZUTE**

**BEHIN PROBA AMAITUTA,
ITXARON ESERITA JARRAIBIDEAK JASO ARTE**

Garatu beharreko kasu praktikoa:

Elortzibarko Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onartu du udalaren eta herritarren arteko harreman elebiduna hobetzeko plana bultzatzea.

Hartara, Elortzibarko Udalak, indarrean dagoen plantilla organikotik eta egungo egoera soziolinguistikotik abiatuta, bere menpeko zerbitzuetan herritarrekiko zirkuitu elebidunak bermatzeko, alegia, lehentasunezko zerbitzuak eta tramiteak gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzeko, lau urteko plan estrategiko egingarria eta ebaluagarria diseinatzea erabaki du.

Presta ezazu plana, beharrezkoak diren atalak eta indarrean dagoen araudia kontuan hartuz.